Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko uztailean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.133 eskaintza erregistratu dira 2024ko uztailean, ekainean baino 502 gutxiago eta 2023ko uztailean baino 13 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko uztailean 213 eskaintza erregistratu dira Araban, 454 Gipuzkoan eta 466 Bizkaian. Eskaintzen % 18,8 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 40,1 Gipuzkoan eta % 41,1 Bizkaian.



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 1 egin dute behera (22 eskaintza gutxiago); Gipuzkoan, % 32,9 murriztu dira (223 eskaintza gehiago); eta azkenik, Bizkaian, eskaintzek % 35,6a egin dute behera, 257 eskaintza gutxiago).

Iazko uztailaren, aldean, igo egin dira pixka bat eskaintzak hiru lurralde historikoetan. Ehunekotan zein balio absolutuetan, Gipuzkoan igo dira gehien, % 1,8 (8 eskaintza gehiago); Araban 2 eskaintza gehiago erregistratu dira (+%1eko igoera); eta, azkenik, Bizkaian 3 eskaintza gehiago izan dira (+%0,7).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn zientzia-teknikarien profilak izan ditu eskaintza gehien: 284 hain zuzen ere, eskaintza guztien % 21,4. Ondoren, zerbitzuen profila dago, 198 eskaintzarekin eta % 17,5eko pisuarekin. Laguntza-teknikarien eta kualifikatu gabekoen okupazio-profilek ere % 10etik gorako pisu esanguratsua dute, erregistratutako eskaintza-bolumenaren ehunekoak % 15,8 eta % 13,9 baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen mailako sektorekoak eta zuzendaritzaak dira, 9 eta 6 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Joan den hilaren aldean, profil guztietako eskaintzek egin dute behera. Balio absolutuetan gehien jaitsi direnak laguntzako teknikarien eskaintzak izan dira (-171 eskaintza eta % 48,9ko jaitsiera ehunekotan); balio erlatiboetan, berriz, jaitsierarik handiena industriako eskaintzetan gertatu da (% 55,2ko jaitsiera, -137 eskaintza).

Urte arteko saldoari dagokionez, balio absolutuetan gehien jaitsi diren eskaintzak zerbitzuenak izan dira, 28 eskaintza gutxiagorekin (%-12,4); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena industriako eskaintzetan izan da, % 19 gutxiagorekin. Aitzitik, igoerarik handiena, balio absolutuetan, zientzia-teknikarien profilean gertatu da, 51 eskaintza gehiagorekin eta % 21,9ko hazkundearekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena operadoreen eskaintzetan gertatu da, % 38,9ko hazkundearekin eta 28 eskaintza gehiagorekin.

•

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 41 mugagabeak dira, % 58,7 aldi baterakoak eta gainerako % 0,3 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta; gainera, hilabete honetan puntu ia 5 puntu hazi da iazko uztailarekin alderatuta, eta 4 puntu aurtengo ekainarekin alderatuta. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joerari jarraitzen diote. Eskaintza mugagabeak 464 izan dira, aurreko hilean baino 137 gutxiago (-% 22,8). Aldi baterako eskaintzak 365etan murriztu dira; guztira 665 izan dira, balio erlatiboetan beherakada % 35,4koa izan da. Azkenik, merkataritza-izaerako 4 eskaintza izan dira uztailean, ekaineko kopuru behera.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 60 gehiago izan dira (% 14,9 igo dira); aldi baterako kontratuen eskaintzak % 7 murriztu dira, 50 eskaintza gutxiagorekin. Azkenik, merkataritzako 3 eskaintza gehiago erregistratu dira urteko erreferentzian.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2024ko uztailean erregistratutako eskaintzen % 81,8k 0-6 hilabeteko esperientzia behar dute; 927 eskaintza guztira. Erregistratutako eskaintzen % 9,1ek, 103 guztira, 6-12 hilabeteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitarteko aldiak, % 1,2ko pisuarekin (14 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek; 2 eskaintza eta % 0,2ko pisuarekin.



Hileko bilakaerari dagokionez, eskaintzek behera egin dute eskatutako esperientzia-tarte guztietan. Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, 0-6 hilabete arteko esperientzia behar dituzten eskaintzetan izan da, 437 eskaintza gutxiagorekin (%-32); balio erlatiboetan, jaitsiera handiena 6-12 hilabete behar dituzten eskaintzetan izan da, 57 eskaintza gutxiagorekin eta % 35,6ko jaitsierarekin.

Urteko bilakaerari dagokionez, esperientzia-tarteetako eskaintzak igo egin dira 0 eta 6 hilabete artean (+30 eskaintza eta % 3,3 gehiago) eta 1-3 urte artean, 6 eskaintza gehiago (+%7,41). Aitzitik, guztizko balioetan, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia tartean murriztu dira gehien eskaintzak, 12 gutxiago izan baitira (-%10,4); balio erlatiboetan, nabarmentzekoa da 5 urtetik gorako eskaintzetan izandako murrizketa, % 80 jaitsi baitira (-8 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko uztailean

Uztail honetan, erregistratutako lan-eskaintzek, batez beste, 5,3 hilabeteko esperientzia eskatu dute.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten eskaintzak erregistratzeko orduan egin beharreko lanaldia, eskaintzen % 14,2k bakarrik zehazten baitute lanaldia, (1.133 eskaintzatik 161 bakarrik). 161 eskaintza horietatik 138 lanaldi osokoak dira, eta gainerako 23ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 142tan jaitsi dira ekainaren aldean, hau da, % 50,7ko beherakada. Lanaldi partzialeko 21 eskaintza gutxiago izan dira uztailean, eta jaitsiera erlatiboa % 47,7koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak 1 gutxiago izan dira (% 0,7ko beherakada). Lanaldi partzialeko 5 eskaintza gutxiago izan dira uztailean, eta beherakada erlatiboa % 17,9koa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 19 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 2 gehiago eta aurreko urtean baino 13 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,2k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.133 eskaintzetatik 213k soilik zehaztu dute.



213 eskaintza horietatik 93k unibertsitate ikasketak behar zituzten, eta ikasketa-maila minimo hori da gehien eskatu dena; ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak behar dituzten eskaintzak datoz, 71 eskaintza erregistratu baitziren uztailean. Horien atzetik daude derrigorrezko ikasketen eta batxilerreko profilak, 34 eta 15 eskaintza erregistratu baitituzte, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, behera egin dute eskaintzek ikasketa-profil guztietan. Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, LHko eskaintzetan gertatu da, 37 eskaintza gutxiagorekin eta % 34,3ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena gutxienez derrigorrezko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzetan gertatu da, % 37 jaitsi baitira (-20 eskaintza).

2023ko uztailarekin alderatuta, derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzek soilik egin dute behera (-1 eskaintza, % 2,9ko jaitsiera). Aitzitik, unibertsitate-ikasketak behar dituzten eskaintzak dira maila absolutuan gehien hazi direnak (24 eskaintza gehiago, % 34,8ko hazkundea) eta batxilergoak maila erlatiboan (+ % 150, 9 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera manufaktura industria da, % 13,5eko pisuarekin (153 eskaintza). Jarraian, osasungintza eta gizarte zerbitzuetako eskaintzak datoz, 145 eskaintzarekin, hileko eskaintza guztien % 12,8.

Aurreko hilabetearen aldean, ia jarduera guztietan jaitsi dira eskaintzak. Garraio eta biltegiratze eskaintzetan (+18 eskaintza, +%58,1) eta administrazio jardueretan (+16 eskaintza, % 15,2ko igoera) izandako igoera nabarmentzen da. Aitzitik, jaitsiera handiena izan duten eskaintzak manufaktura-industriarenak izan dira, 130 eskaintza gutxiagorekin (-%46). Ondoren merkataritzako eskaintzak datoz, 103 eskaintza gutxiagorekin (-%44,6ko beherakada).

Urte arteko saldoari dagokionez, nabarmentzekoak dira ostalaritzako (-18 eskaintza, -% 21,4) eta hezkuntzako (-17 eskaintza, % 18,3ko murrizketa) eskaintzen jaitsierak. Igoera handienak, aldiz, administrazio publikoan izan dira, 26 eskaintza gehiagorekin (% 36,1eko igoera) eta garraioan (+22 eskaintza eta % 81,5eko hazkundea).